

UZTARRIA



MARI JOSE BIKENDI

ANTXIETATIK ANTXIETARA



erreforma integralak

dica



URRATEGI
INTERIORISMO
bone dabiluz

www.urrategiinteriorismo.com
Aragueta 27 Arratxe 9
20600 Eibar 20730 Azpeitia

MILAR LARRAMENDI

Etzetresna elektrikoak




ABUZTUAREN 29AN
ITZULIKO GARA
DENDARA, BAINA
BITARTEAN, GOGORATU
www.milar.es
WEBGUNETIK EGIN
DITZAKEZULA
EROSKETAK.



ONDO PASAU SANINAZIYUEK 2022

ZURE LORATEGIRA EGOKITUKO DEN

atsedenleku freskagarria!

 **KIMUBAT**
— PAISAJIA

Urrestilla bidea z/g, Azpetilla
943 15 00 85 | iker@kimubat.eus



Informa zaituzte konpromisorik gabe.

ABANTAILAK | Muntaketa eta kartzeko erraza · Erdi lurperatuta jartzeko aukera · Aldapadun eremustarako aproposak
Ez dute obra balmenik behar · Lorategirako altzari bezala erabili daitezke · 5 urteko garantzia · Espazio bakoitzera egokituta
www.kimubat.eus



UZTARRIA

252

2022KO ABUZTUA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:

KRIS FERNANDEZ

Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Maialen Etxaniz, *Bizitza bizio.*
- 6 **Zu zeu** Maria Perez,
bigarren eskuko arropa saltzailea.
- 8 **Nire leihotik** Jon Olaizola,
Lagun min fidagarria.
- 10 **Iritziak** Irati Aranguren, *Nora begira?*, Hiromi Yoshida, *Hil ala bizi.*
- 12 **Elkarrizketa** Mari Jose Bikendi
Juan Antxieta musika eskolako
zuzendaria.
- 19 **Erreportajea** Udaltzaingoaren
eredu berria.
- 19 **Lehiaketa**
- 26 **Erretratua** Olatz Arriaga ikerlaria.
- 30 **Plazan bazan**
- 33 **Iritzia** Oier Etxeberria, *Bekadunak.*
- 34 **Atzera begira** Maolo Erkizia ETBko
langilea.
- 38 **Iritzia** Miren Segurola, *Larri samar.*
- 40 **Iritzi grafikoa** Itziar Aranguren.
- 42 **Klik!** Eduardo Arana motozalea.
- 46 **Iritzia** Janire Alkorta, *Plisti-plasta;*
Ignacio Arakistain, *Printzak.*

UZTARRIA

TOKIKOM

Argitaratzailea:

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-15 03 58
uztarrria@uztarrria.eus
www.uztarrria.eus

Zuzendaria:

Julene Frantzesena
Erredaktoreburua:
Ihintza Elustondo
Erredaktore taldea:
Mailo Oiarzabal
Julene Frantzesena
Maialen Etxaniz

Ihintza Elustondo

Diseinu arduraduna:

Iñaki Martinez Albizu

Publizitate arduraduna:

Angel Sarasua

Zenbaki honetako

kolaboratzaileak:

Jon Olaizola

Irati Aranguren
Hiromi Yoshida
Itziar Aranguren
Olatz Alkorta
Oier Etxeberria
Miren Segurola
Janire Alkorta
Ignacio Arakistain
Nora Alberdi

Inprimategia:

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-860/2000
ISSN: 1576-7337
Tirada: 2.500 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



uztarrria
AZPEITIKO KOMUNIKAZIO TALDEA

PUBLIZITATEA



ostadar optika
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17
Tel. 943-810664
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28
Tel. 943-850445
AZKOITIA

EGUZKI
belardenda
dietetika
kosmetika naturala



Kale Nagusia 67 943-60 34 47 AZKOITIA
Utrillate 9 bis 943-15 00 23 AZPEITIA

IRENE ALTUNA
JORDAZENA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943-81 51 87
www.cakunadentia.com



**ERLOJU
KONPONKETAK**

Arana, 5
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12



Loiola hiribidea, 24
LOIOLA - AZPEITIA

Tfnua.: 943 81 50 08
Faxa.: 943 15 03 62



Tuba
ahelkularitza

Analkularitza
liberak
lehenak
konkateak

Gestioi labak
Finkean administratzaioak
Gestioi imobiliaritzaioak

Tfn: 943 157 323 Faxa: 943 157 374
Euzkoan kalera: 49 - 4. ibilbideko bulegoan



Ekain
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria Kalea, 34
20730 AZPEITIA
Tel.: 943-15 16 40
Larrialdiak: 688 69 29 51



**JARRI HEMEN
ZURE IRAGARKIA!**



Aiortza Autoak
Behar duzun konfiantzazko lantaldea!

Marka guztietako
ibilgailuen konponketak

943-81 19 15
AZPEITIA
aiortza@aiortzaautoak.com



EuroZifer EUROTALLER MULTIMARKA ZERBITZUA



adi
ARTE ETA
DISEINU
ESKOLA
ELKARTEA

Marraskia eta eskulanak
(haurrak) 17:30 - 19:00

Pintura 16:00 - 17:30
(helduak) 19:00 - 20:30

Tallak 18:30 - 20:00

Jose Artetxe kalea, 3
943 81 29 08
www.aditallak@gmail.com
Matrikula urte onen zabalik



IKA
argi lanak s.l.

Instalakuntza Elektrikoak

Urtut.: 618 96 49 95 / Jun.: 649 12 02 71
ikazargilanaie@gmail.com www.ikasistemak.com
20730 AZPEITIA

"KÓLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK"



**URBISTONDO
MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea 20730 AZPEITIA - Urtut.: 943 81 57 81

Bizitza bizio



MAIALEN ETXANIZ

Etxera iritsi berri da. Etxeko sarreran utzi du asteburuan lanetik kanpoko bestelako lanak egitera joateko Carabanchelera egindako joan-etorrian erabili duen maleta. Ez dauka tolestu gabe gordetako arropa poltsatik ateratzeko gogorik. Igandea da, eta bero egiten du kanpoan; zer esanik ez etxe barruan. Lagun baten aitak aspaldi erosi eta okerrekoa zela konturatu zenean oparitu zien haizegailua piztu du, eta besaulkian eseri da, gero zer egingo duen jakin nahi gabe. Enegarrenez, *Gizajoen katalogoa* ikusi du egongelako apalean, eta irribarre bihurria atera zaio, ohi bezala. Betitik atsegin izan du liburu horren azaleko irudia; zer esanik ez izenburua. Gizajo mordoak sartuko luke katalogo horretan. "Joxean Agirrek bazekien zerbait", pentsatu du bere baitan, eta mila bider irakurri duen paragrafoa irakurri du ahots goran: "Guztiok izan gara abenturazale pare bat egunez edo poeta gau batez, denok bihurtu gara ausart edo samur edo gogor nonbaiten begiradak hala eskatzen zuelako, edo antzaldatu gara eta hasi gara etxe bat margotzen, garbitu ditugu lorategiak, igo gara teilatura itoginak konpontzera irribarre baten truke". Sekula ez du irakurri gizajoei eskainitako nobela hasi eta buka; ez du nahi. Beraz, apalean utzi du, enegarrenez, gainerako liburu irakurteraz ondoan.

Bizitza joan, bizitza ihes ikusten du, baina ez dio begi tristeaz begiratzen bizitzari. Inoiz baino dirdiratsuaگو ditu begiak. Azaleko mihisean egin zioten tatuajeak gogorarazten dio behinola izan zuela bizitza jateko gogo; abenturazale amorratuaren grina, ameslari utopikoenarena, mundua irentsiko zuenaren ustea. Aldiro garbitu behar duen komuneko ispiluak erakusten dio gaztetan egindako tatuajea: *Bizitza bizio* dio, eta gizajoen katalogoarekin nola, irribarre bihurri bat marrazten da haren aurpegian, soinean daraman esaldiarekin topatzen den bakoitzean. "Zerbait banekiela pentsatuko nuen", gogoetatzen du irribarretsua.

Igandea da, eta bihar iritsiko den astelehenak izutzen du. Nekagarriak zaizkio astegunak. Lanarenganako loturak estutzen du. "Eskerrak oraindik ez daukadan hipotekarik, umerik, autorik...", hausnartzen du. Baina adinean aurrera doa, eta horrek ere estutzen du. Ingurukoak ezkontzen ari zaizkio, aurreneko haurrak ere jaio dira, baina berak urrun ikusten du hori guztia...

Lasai egon nahi du, inoiz baino gehiago. "Munduan zehar bidaiatzeak beste balio du gaur lasaitasunak", dio. Egotez egon ahal izatea desio du egunero, Paul Austerren *New Yorkeko trilogian* barna bidaiatzeko denbora bilatzea edo lagunak oparitutako liburu ulertezinaren konplexutasunean galtzea. Horregatik, bizitza bizio izan baino, bizitza bizigarri bat edukitzea du nahiago. Igandea da, eta bihar astelehena. ■■■

BIZITZA BIZIO IZAN BAINO, BIZITZA BIZIGARRI BAT EDUKITZEA DU NAHIAGO

Maria Perez: "Handitzen ari da bigarren eskuko arropa erosteko joera"

TESTUA: **JULENE FRANTZESENA**

ARGAZKIA: **UTZITAKOIA**

Aurten hasi da Maria Perez (Azpeitia, 1990) bigarren eskuko eta *vintage* produktuen azoketan parte hartzen, Holy Mary Vintage izenpean. Azkoitian jarri zuen postua lehen aldiz, eta harrezkero urratu du bidea. *Vintage* arroparen loraldia Euskal Herrira ere iritsi dela uste du.

Zer dela-eta hasi zara azoketan postua jartzen?

Aspalditik dut *vintage* arroparekiko interesa; telak, patrioiak, botoiak, etiketak... Izugarri gustatzen zait garai batekoa den guztia. Badira urte batzuk arropa saltzeko ideia irabiatu eta ematen hasi nintzela, baina urte hasieran erabaki nuen urratsa egitea. Urtarrilean Top Market azoka antolatu zuten Azpeitian, eta han Onintze Olasagasti (Oninpintage) ezagutzeko aukera izan nuen. Harekin hitz egitea nahikoa izan zen; nahi baldin banuen hurrengo azokara nire arropa eramateko esan zidan, eta halaxe hasi nintzen.

Zer saltzen duzu?

Vintage arropa gehienbat. Horrez gain, poltsak, gerrikoak, belarritakoak, zapatak eta betaurrekoren bat edo beste ere bai. Garai batekoak dira guztiak, banan-banan aukeratuak.

Nondik eskuratzen dituzu produktuak?

Batetik, bidaietan erositako produktuak dauzkat, pixkanaka bildumatutako altxortxoak eta niretzat esanahi berezia dutenak. Azoketarako behar den bolumena lortzeko, baina, partikularrei eta handizkako saltzaileei erosten dizkiet produktuak. European egindako arropa erosten dut, Frantziakoa eta Italiakoa gehienbat. Erosen dudan guztia kontu handiarekin aukeratzen dut; denbora asko ematen dut horretan.

Nola prestatzen da azoka bateko postua?

Azoka bakoitzera zer eraman aukeratu behar da lehenik. Bestalde, arropa gordetzeko lekuaren arabera, errazagoa edo zailagoa izango da logistika. Nik ganbaran, kaxetan, gordetzen dut materiala, handik jaitsi eta autora sartzeko. Azokaren bezperan dena prest uztea gustatzen zait; lasaiago egiten dut lo.

Azkoitian estreinatu zinen...

Bai, eta oso egun polita izan zen. Aste neketsua pasatu nuen gauzak prestatzen, baina merezi izan zuen. Familiakoak eta lagunak ere joan ziren, eta babestuta sentitu nintzen. Gainera, jendeari gustatu egin zitzaion eraman nuen arropa, eta ilusio handiz itzuli nintzen etxera.

Harrezkero, non jarri duzu postua?

Zumaiako Uzkuadun tabernan eta Portutxiki kantuan nahiz Hondarribiako Katea Festen. Abuztuaren 7an, berriz, Orioko Mola Mola tabernak antolatutako azokan izango naiz, eta irailerako Lasarte-Orian dut beste hitzordu bat.

Modan daude bigarren eskuko eta *vintage* produktuen azokak. Zer dute berezia?

Ez dakit modan al dauden; hemen inguruan bai agian, baina European, hirietan bereziki, betidanik egin dira halako azokak. Giro ederra sortzen da azoketan, estilo guztietako jendea joaten da horietara, eta oso aberatsa da hori. Azokara joan arte ez dakizu zehazki zer aurkituko duzun, eta horrek berezi egiten du azoka bakoitza.

Zer produktuk dute arrakasta handiena?

Era guztietako alkandorak dira saltzen errazena. Tailarekin asmatzea erraza da, pixka bat handixeagoak izanda ere ondo gelditzen direlako eta modu askotan erabil daitezkeelako. Azokek badute zerbaite berezia; uste dut horietan sortzen den giroak erakartzen duela jendea. Saltzaileak aldatu egiten dira azokatik azokara, eta sorpresa faktore ederra da hori.

Bigarren eskuko arropen mugimendu handia al dago Euskal Herrian?

Badira halako dendak, eta egiten dira azokak. Beste zenbait lekurekin alderatuta, gutxi dira agian, baina azken urteetan handitzen ari da bigarren eskuko arropa erosteko joera. Oraindik bada bigarren eskuko produktuei mesfidati begiratzen dion jendea, baina aldi berean, gero eta gehiago dira *vintage* modak harrapatu dituenak. Jasangarritasunarekiko gero eta kontzientzia handiagoa du jendeak, eta gero eta jende gehiagok estimatzen du arropa mota hori eta horrek ematen dituen aukerak, originaltasuna, esaterako. ■■■



Lagun min fidagarria



ARGAZKIA ETA TESTUA: JON OLAIZOLA

Lagun min fidagarria.

Kontzientziarik eduki ez arren, zugana deitu eta erakarri ohi gaituzuna, ilunabar eta egunsentiekin milaka margolan eskainiz.

Norberak esandakoa, pentsatutakoa, barruan betiko gordetzen duzuna, eta bueltan, olatu soinu bitartez erantzuten maisua.

Zaharretan zaharrena. Gizaldi guztien oroitzapen eta ametsen testigu, arimen ispilu.

Momentu txarrak ito, eta onak, aldiz, sendagai dituzula, lagunarteko uneak luzarazteko geltoki onena zara. ■■■





Nora begira?

Uda bete-betea gaude, eta gu ere hala gabilta, bero eta ero. Euskal Herriak badu uda txarren fama, nahiz eta nire aburuz kontzeptu hori jantzita ditugun betaurrekoen arabera den. Zer da uda txarra? Nork ditu gogoko 30 gradutik gorako egunak? Nork du gustuko euri egunik gabeko garaia? Zerua lainotuta esnatzea norentzat da motibagarri? Hasi dira tomateak gorritzen, eta baratzean argi ikus daiteke euriaren eta eguzkiaren arteko orekarik gabe ezin dela bizi. Baina pertsonak garen bezalakoak gara, eta hala goaz eguzkitako betaurrekoak jantzi eta itsumustuan izpien atzetik.

Eguzkia non, gu han. Eguzkiari begira pasatzen ditugu sarri oporrak. Nora joango gara oporretan?

Hondartzan nora begira eseriko naiz? Eguzkia nora, gu hara!

Aurreko guztia adibide hutsa zen. Errealitateaz jakitun bizi ote garen hausnartzeko bidea ireki nahi nuen. Nora begira bizi garen kontziente ote garen hausnartzera gonbidatu nahi zintuztedan. Nire iritziz, badira itsutzen gaituzten zenbait elementu egunerokotasunean. Baina itsu-itsuan ibili ordez, zerk itsutzen gaituen identifikatzen jakitea ere ongi legoke.

**ZENBAIT ADITUREN
ARABERA,
ERREALITATEAREN
%2AZ BAKARRIK
JABETZEN GARA**

Duela bizpahiru hilabete herriko jatetxe batera joan nintzen bikotekidearekin afaltzera. Aurrez aurre eseri ginenean; mahaia luzea zen, eta ondoan beste familia bat zegoen. Ez genuen mahaia elkarbanatzeko arazorik izan, beraiek lasai eta isilik zeuden, eta gu ere gure erara, tertulian. Halako batean, ordea, harritu egin ninduen familia hura mahaian jarrita zegoen moduak. Gizonezkoa eta hiru haurrak mahaiaren alde batean zeuden; emakumea, berriz, beste aldean zegoen eserita. Atentzioa eman zidan andrea bakarrik egoteak, baina hortxe amaitu zen nire gogoeta, ez nion garrantzi handiagorik eman.

Bikotekidea eta biok han genbiltzan maxixatzen, igande iluntzeko patxada aprobetxatuz kontu kontari. Ondoko familia

HAUXE BAI JENEROAI!



isilik zegon, kokatuta zeuden modua arraroa zen, bai, baina elkarrekin zuten komunikazioak ere piztu zuen nire arreta. Kostatu zitzaidan, baina jabetu nintzen! Emakumearen atzealdean telebista zegoen, eta une hartan futbol partida zegoen ikusgai! Ama telebistari bizkarra emanda zegoen bitartean, gainerakoak pantailari begira ari ziren afaltzen. Eguzkiarekin bezalatsu: baloia nora, gu hara!

Ohartu ote ziren iluntze hartan dastatutako kroketen zaporeaz? Ikusi ote zuten entsaladak, tomate edo letxuga, zer ote zuen gehiago? Otordu hark gatza egoki ote zuen? Jabetu ote zen haurra kukurutzoko izozkiari eroritako tantak dastatu gabe geratu zirela? Zaletasunak behar-beharrezkoak ditugula deritzot. Bakoitzak bere gozamen momentuak izateko

aukera aproposak dira, interes bereko kideak ezagutzeko eta elkarrengandik ikasteko primerako bideak. Baina harreman horretan balioak alboratzeak kezkatzen nau. Mahaikide haiei galdetuz gero, agian ez lukete erantzungo familian afaltzera joan zirenik; futbola ikusiz nutrientek hartzera joan zirela esango lukete, eta lasaituko nintzateke, zertan zebiltzan kontziente zirela esan nahiko bailuke.

Zenbait adituren arabera, errealitatearen %2az bakarrik jabetzen gara; gainerako %98az ez gara kontziente. Beraz, ikusten dugun apur hori zaindu dezagun mimoz. Nire mahaiko gutuziak dastatzera gonbidatuta zaudete, baina beti ere kartetan jokatzeko gisan, aurrez aurre begietara begira. Bizitza bizitzari so! ■■■

HAN ETA HEMEN



HIROMI YOSHIDA

Hil ala bizi

Ainuera, ainu etniaren hizkuntza, Japoniako iparraldean hitz egiten zen. Azkenengo hitzun natiboa orain dela urte batzuk zendu zen. Beraz, linguistek hiltzat ematen dute ainuera. Baina ainuera ikasten ari direnek (ama hizkuntza japoniera dutenak dira) eta haiei laguntzen dietenek zera diote, aho batez: "Ainuera ikasten ari direnak dauden bitartean, bizirik iraungo du hizkuntza horrek."

Bai, ainu gazteak ari dira ainuera ikasten, ahalegin handia eginez. Eta horri lotuta, bi arazo nabari daitezke: batetik, ikasleek japoniera dutenez ama hizkuntza, haien ainuerak japonieraren eragin izugarriak jasan behar ditu nahi eta nahi ez eta ainuerak bere jatortasuna galduko luke; eta bestetik, ainueraz ikasita ere, ez dute ainuera etengabe erabiltzeko komunitaterik.

Baina bigarren arazoarekin uxatu egiten da aurrenekoa, hizkuntza aldatzen joan dadin, erabili egin behar delako. Beraz, ainueraren egoera oraindik ez da iristen lehen arazoa sortzera ere. Momentuz, ainuek diote gero eta ainu gazte gehiagok ainueraz hitz egiten ikastea dela garrantzitsuena. Gero gerokoa. Ainueraren egoera ikusita, euskararekin konparatzen hasten naiz beti. ■■■



"Herriari zerbitzua ematea da musika eskolaren helburua"

MARI JOSE BIKENDI JUAN ANTXIETA MUSIKA ESKOLAREN ZUZENDARIA

Antxieta Etxean trebatu zen Bikendi gaztetan akordeoiarekin, eta Juan Antxieta musika eskolan egin du laneko ibilbidea. Egin du, eta egiten jarraitzen du. Ia hogeit hamar urte daramatza musika eskolaren zuzendaritzan, eta bi erronka potolori aurre egiteko prestatzen ari da eskola: urteurren bat eta lekualdatze bat.

Testua: **Mailo Oiarzabal**. Argazkiak: **Kris Fernandez**.

Ikasturtea amaitu ondoren hartu du Mari Jose Bikendik (Azpeitia, 1965) Uztarrria, ekaineko azken egunean, Juan Antxieta musika eskolaren Perdillegi kaleko egoitzan. Korridoreak eta gelak hutsik eta isil-isilik daude, ikasturtean zehar ohikoak dituzten mugimendurik eta doinurik gabe. Bake horretan, oporrak hartu aurretik, lanean jarraitzen dute Bikendi zuzendariak eta Karmen Larrañaga lankideak, bakoitzak bere bulegoan. Izan ere, amaitu berri den ikasturtea ixtea ez ezik, datorrena prestatzea dagokie. Gainera, 2022-2023koa ez da edonolako ikasturtea izango Azpeitiko musika eskolarentzat. Urteurren borobil bat dute ospatzeko. Eta, zertxobait aurrerago begira jarrita, etxe aldaketari ere aurre egin beharko dio musika eskolak. Kontu horiek eta beste asko hizpide izan ditu Bikendik elkarrizketan.

Akordatzen al zara noiz hartu zenuen lehen aldiz eskuetan musika instrumentu bat, eta zer instrumentu izan zen?

Akordeoa izan zen, eta 6 bat urte izango nituen. **Nola izan zen hori?**

Gure etxean bazegoen musikarako joera, giro musikala. Itxura denez, nire anaia denek ikasi zuten solfeo parrokian, eta nire aitari eta haren aldeko familiari ere beti gustatu izan zitzaion musika; uste dut aitak klarineta jo izan zuela bandan. Eskusoinuari dagokionez, ez dakit nik esan al nuen instrumentu hura nahi nuela ala etxean pentsatu zuten bazela hura gure etxean edukitzeko moduko instrumentua. Dena dela, badakit jaunartzea egin nuenerako banuela soinua, soinu handi bat altzoan dudala agertzen naiz-eta jaunartzeko argazkietan.

Zure garaian ba al zen musika eskolarik? Nola ikasi zenuen soinua jotzen?

Ez, ez zegoen musika eskolarik. Jose Mari Altunarekin hasi nintzen ikasten. Bandako zuzendaria zen, eta garai hartan hark ematen zituen bandako instrumentu guztien eskolak. Soinu eskolarik ez zuen ematen, baina huraxe zen musika eskolak ematen zituena, eta... Solfeoa-eta ikasi nituen Altunarekin. Ondoren, Tere Oteizarekin ere ibili nintzen solfeoan, eta azkenik, Azkoitiko Mari Jose Arregirekin. Eskola partikularrak ziren guztiak, etxeetan ematen





Mari Jose Bikendi, Juan Antxieta musika eskolako sarrerako atearen ondoan. Laster egoitza berria izango dute Antxietakoek.

zituzten, ez zegoen musika eskolen antzeko gunerik.

Eskusoinu handiaz gain, ikasi al zenuen beste instrumenturen bat jotzen?

Gerora, bai, trikitia jotzen ikasi nuen. Aurretik, piano pixka bat ere ikasi nuen; ikasturte batzuk egin nituen pianoarekin, baina osagarri gisa. Eta une oso zehatz batean, musika eskolako beharrak asetze aldera, tronpeta jotzen ere ikasi behar izan nuen [barrez]! Esperientzia polita izan zen, oso ondo pasatzen genuen klaseetan; eta kalera ere

irten ginen jotzera, karnabaletan izan zela uste dut. Baina, esan bezala, une jakin bateko kontua izan zen, esperientzia txiki eta labur bat. Zer instrumentu menderatzen ditudan galdetuz gero, ez nuke tronpeta aipatuko.

Ba al dago jotzen ikasi ez duzun eta ikasteko gogoarekin gelditu zaren instrumenturen bat?

Ez. Musika eskolan lan egiteak instrumentu asko ezagutzeko eta entzuteko aukera ematen du, eta horrek nahikoa asetzen nauela esango nuke. Akordeoiak berak ere betetzen nau, aukera zabalak eskaintzen dituen instrumentua da.

Akordatzan al zara akordeoiarekin jendaurrean lehen aldiz noiz eta non aritu zinen?

Ez, lehen aldiarekin ez naiz akordatzan, baina gogoan ditut gaztetan akordeoiarekin jendaurrean bizitako esperientzia batzuk. Esaterako, Antxieta Etxean jo izan nuen, hara joaten ziren bisitarien zatia, Imanol Eliasek eskatuta. Frantziatik Loiola ezagutzera egun-pasa etorritako turista taldeak-eta izaten ziren. Imanolek meriendaxoa ematen zien haiei Antxietan, eta meriendak girotzan aritzen nintzen ni akordeoiarekin, astean bizpahirutan. Eskusoinua ikasten ari nintzen garaiak ziren, eta ez ziren erromeriak, baina jendaurrean aritzeko eta trebatzeko aukerak bai. Sasoi hartan, Gabon eskekoekin ere ibiltzen nintzen, Amaia Garmendiarekin eta; herria irteten zen eskean, eta gogoan dut Enparan Dorretxean elkartzan ginela. Eta Sahatsarekin ere bai, Urrestillako zimitorioan egiten zituzten entseguetan, gazte askoa nintzela. Zenbat urte edukiko nituen, ba? 10 bat? Dozena bat, asko jota. Ez naiz ondo gogoratzen, baina oso-oso gaztea nintzen, eta gogoan dut nire lehendabiziko soinuarekin joaten nintzela hara, tekladun soinu beltz handi harekin.

Sahatsa dantza taldean gerora ere jarraitu zenuen.

Bai, dantzan, eta musikari ere bai. Baina hasierako harekin akordatzan naiz, taldea artean Urrestillan aritzen zenean hasi nintzela, ez Azpeitian. *Axuri beltza* kanta belarriz nola atera nuen gogoan daukat, oso gogoan. Garai hartako gauza askorekin ez naiz akordatzan, agian, baina begira, detaile horiekin bai.

Eta zer pieza eskaintzen zenizkien Antxieta Etxera joaten ziren bisitarietara? Zer erreperitorio menderatzen zenuen?

Denetarik jotzen nuen: baltsak, fandangoak, pasodobleak... Batzuetan bisitarietara beraiek eskatzen zizkidaten pieza jakin batzuk: "Halako jotzen ba al dakizu?". *Maria Jesus y su acordeón*,



Bikendi, akordeoirarekin.

**"AKORDEOIAK BETETZEN NAU,
AUKERA ZABALAK ESKAINTZEN
DITUEN INSTRUMENTUA DA"**

**"USTE DUT ESAN DAITEKEELA
UNE HONETAN OSASUNTSU
DAGOELA MUSIKA ESKOLA"**

**"SOREASU BADA ESPAZIO NATURAL
BAT GURETZAT, KULTURA LANTZEN
DUEN HEZKUNTZA GARA-ETA"**

Pajaritos... horrelakoak, eskatzen zituztenak. Egundoko erreperatorioa neukan. Eta ez zen izaten pieza bat jo eta hurrengora arte tarte handirik, etortzen zirenetik meriendatxoa bukatzen zuten arte, ordubetez edo ordu eta erdiz, ia etenik gabe aritzen nintzen, jo eta jo.

Zenbat urte izango zenituen orduan?

Ez dakit ba... 15? 16? Gutxiago, agian? Gehiago ez dut uste, behintzat, oso gaztea nintzen.

Noiz eta nolatan hasi zinen musika irakasle lanetan?

Musika eskolaren sorrerarekin bateratsu izan zen. Jose Ignacio Alberdik deitu zidan solfeo irakaslea behar zutela esanez, 7 urtekoei eskolak emateko. Garai hartan musikako irakaskuntza beste modu batean zegoen antolatuta. Hasi nintzenean, ikastola berrian [Karmelo Etxegaraireren Euskal Herria kaleko eraikinean] ematen genituen eskolak; ikasle gutxi batzuk genituen. Gero, Perretxikora lekualdatu zen musika eskola, eta han ikasle pila bat elkartzen ziren, talde handietan, gainera.

Zenbat urte joan dira orduz geroztik?

Datorren ikasturtean 40 urte beteko dira musika eskola ofizialki sortu zenetik. 1982-1983 ikasturtea izan zen musika eskola gisa eta modu ofizialean osatu zuen lehendabizikoa. Aurretik, pare bat urte lehenagotik, agian, ari ziren zenbait musika irakasle elkarrekin lanean. Ni musika eskola egiturarekin lehen pausoak ematen ari zirela hasi nintzen lanean; 1985ean sinatu nuen lehen kontratua, 20 urterekin.

Noiz eta nolatan hartu zenuen musika eskolaren zuzendari lana?

Bi aldi nagusitan egon naiz zuzendaritzan. Lehen aldian, ezingo nuke garbi edo zehatz azaldu nola iritsi nintzen zuzendari postura; aurretik beste lankide batzuek izan zuten ardura hori: Loli Oteizak, Maria Angeles del Valek, uste dut Maria Jesus Agirre ere ibili zela tarte batean... Uste dut lekukoa beste norbaiti emateko garaia edo egoera iritsi zela, eta niri tokatu zitzaidala. Ez nintzen posturako aurkeztu, baina geure artean hitz eginez eta, neu hasi nintzen lan horretan, batere esperientziarik ez nuen arren. 1989-1990 ikasturtean hasi nintzen zuzendari lanetan, eta 1993-1994 ikasturtera arte izan nuen ardura hori lehen aldian, kanporatu ninduten arte. Urte batzuk igarota, itzultzeko eskatu zidaten; 2009-2010 ikasturtean hasi nintzen berriro zuzendari lanean, eta horretan ari naiz harrezkero. Ez dakit erotasunagatik den edo zergatik, baina hemen nago.

Zer egiteko ditu musika eskola bateko zuzendariak? Zer lan dagozkizu zuri?

Alde batetik, barne egiturari dagokion lana da. Eskolaren proiektu pedagogikoa eta barneko egituraketa mantentzea, sustatzea zein berritzea dagozkio zuzendaritzari, eta ikasleekin adostasuna lortzea eta ikasleen ongizatea ere bai. Harremanak zaintzea eta jorratzea ere bada zuzendariaren lana; eskola barruko harremanak, batetik, baina eskolaz kanpokoak ere bai, beste taldeekin edo eragileekin, kultur taldeekin nahiz erakundeekin. Finean, musika eskolaren helburua da herriari zerbitzua ematea, eta zerbitzu horrek barne hartzen dituen arlo guztietan bidea egitea eta harremanak lantzea da zuzendaritzaren betebeharra.

Aipatu dituzun eginkizun horietan ez ezik, herritarrek ikusten zaituzte kalejiretan, jaialdietan...

Egia esan, Azpeitiko musika eskolak jarduera eta ekintza askotan parte hartzen du ikasturtean zehar, irailetik ekainera; herriari ematen diogun zerbitzu horri lotuta, batetik, eta geure barne jarduerari lotuta, bestetik. Herrian eskatzen badigute han edo hemen, era batera edo bestera, laguntzea edo ekarpena egitea, saiatzen gara ezezkorik ez esaten eta eskatzen digutena betetzeko modua egiten. Herrikoak gara eta herriak elikatzen gaitu; uste dut hori ere badela gure eginbeharra. Akordeoiaz gain trikitia ere jotzen dudanez, neuri ere tokatzen zait kanpoko ekintza batzuetan parte hartzea. Baina neuk parte hartzen ez dudanetan ere gustatzen zait eskolatik kanpo egiten ditugun ekintza horiek ikustera joatea, gure portaera eta jendearen harrera nolakoak diren ikustea.

Zuzendaria, ikasleak zein irakasleak, denak ibiltzen zarete eskolaz kanpoko ekintzetan eta ekitaldietan. Prestasuna eskatzen du horrek. Erraz moldatzen al zarete ekitaldietarako jendea biltzerakoan?

Bai, esango nuke, orokorrean, ondo erantzuten duela jendeak. Gainera, saiatzen gara lan karga beti ikasle edo instrumentu berberei ez ematen, batzuetan batzuei eta besteetan besteei esaten. Egia da errazagoa dela kalejirak trikitilariekin edo txistulariekin egitea, beste edozein instrumenturekin baino. Baina banda gazte polita daukagu, oso giro ona dute, eta beti animatzen dira kalean aritzera. Ikasleek ondo erantzuten dute, oro har.

Musika eskolarena eskolaz kanpoko jarduera da ikasleentzat. Gaur egun, eskolaz kanpoko ekintzetan aukera oso zabala dute ikasleek. Osasuntsu al dago

musika eskola? Ba al dago musika heziketarekiko interesik?

Baietz uste dut, badagoela interesa. Urte batzuk besteak baino hobeak izaten dira ikasle kopuruari dagokionez, baina gauza bera gertatzen da ikastetxeetan ere, urte bakoitzean jaiotako ume kopuruaren arabera izaten da hori, hein handi batean. Horrez gain, joerak eta modak ere hor daude, eta horiek ere eragin dezakete. Bukatu berri den ikasturtearen amaierako jaialdiak eman dezake musika eskolaren une honetako egoeraren neurria; jaialdi amaieran Soreasuko agertokian 200 bat ikasle han elkartuta ikusteak, aurretik handik igaro zirenak... Uste dut une honetan musika eskola osasuntsu dagoela esan daitekeela, ezingo dugu ezetzik esan. Are hobeto edo osasuntsuago egotea gustatuko litzaugukeela? Baita ere, zergatik ez. Baina ikasturte amaierako jaialdiaren argazki horrekin geratzen naiz ni une honetan. Ikusiko dugu datorrena nola etortzen den.

Duela 37 urte hasi zinen musika eskolan lanean, eta horietatik ia hogeitan izan zara eskolaren zuzendaria. Zer bilakaera izan du Juan Antxietak zu sartu zinenetik gaur arte? Zer mugarri nabarmenduko zenituzke?

Irabazi asmorik gabeko guraso elkarte da musika eskola; hori horrela mantendu da hasieratik gaur egunera arte, baina asko aldatu dira gauzak urte hauetan. Hezkuntza ez arautuaren esparrukoak garen arren, kontuan hartu behar da, musika eskola garen aldetik, badugula bete beharreko araudi bat. Arau horiek espazioei, irakasleei, espezialitateei edota instrumentuei eragiten diete; esaterako, ezin da musika eskola bat ireki aukeran bi instrumentu bakarrik eskainita. Araudi bat dago, baldintza batzuk bete behar dira. Azpeitiko musika eskola martxan hasi zenean, plangintza zehatz batekin hasi zen lanean: ordu kopuru jakin batzuk zehaztuta zeuden astean zehar musika irakasteko, instrumentuak irakasteko edo abesbatzarekin lan egiteko. Dena zegoen oso-oso araututa. 1992ko Espainiako LOGSE hezkuntza legeak berrikuntza asko ekarri zituen. Besteak beste, musika eskolei aurreko araudi zurruna alde batera utzi eta bakoitzak bere musika eskola antolatzeke aukera eskaini zien. Gutxieneko arau batzuk zehazten zituen lege hark, musika eskolek zenbat maila eskaini behar zituzten edota irakasleek zer titulazio behar zuten, adibidez; baina gainerakoan, barne antolakuntzan askoz malguago jokatzeko aukera eskaini zien musika eskola guztiei. Ondorioz, metodologiak ere asko



Bikendi bere lantokian, musika eskolako zuzendariaren bulegoan.

aldatu ziren, lehen askoz zorrotzagoak ziren, ez zeukaten gaur egungoekin zerikusirik. Bestetik, mailak gainditzeko Donostiako Kontserbatorioaren azterketak gainditu beharra zegoen lehen, eta horrek ere derrigorrezkoa izateari utzi zion. 1992ko legearekin etorri zen aldaketaren aurretik, musika eskolara etortzen ziren ikasleen helburu nagusia musika arloko tituluren bat eskuratzea zela esan daiteke. Gaur egun, berriz, aisialdiarekin gehiago uztartzen den jarduera da ikasleentzat musika eskola: instrumentu bat jotzen ikastea, baina talde bateko partaide izanez eta talde hori elikatuz, hori da gaur egun musika eskolaren eskaintzaren helburu nagusietako bat. Horrek ez du esan nahi musikan bidea egin nahi dutenei edota maila hobetu nahi dutenei aukerarik ez zaienik eskaintzen; bide hori jorratu nahi dutenak prestatzen ditugu kontserbatorioan sartu ahal izateko azterketa gaindi dezaten.

Epe motz-ertainean egoitza berria izango du musika eskolak, eta 40 urte beteko ditu datorren ikasturtean. Nola helduko diezue erronka horiei?

Espazio propioa eta egokia izatea izan da urteetan gure borroketako bat. Orain gauden egoitzara

etorri ginenean lortu genuen lehen aldiz geuretzat bakarrik izango zen espazio bat, nahiz eta txiki samarra iruditzen zitzaigun. Urteak aurrera joan ahala, ordea, hasieran txikitxo iruditzen zitzaigun espazioa handitzen joan da, eta espazio hori gure beharretara eta gustura egokitzen ere joan gara. Gainera, ikastetxeetatik gertu gaude egungo lekuan, nahiz eta beti sumatu izan dugun auditorium txiki baten falta. Baina iritsi da gauden gunean beste behar batzuei erantzuteko zerbitzu berriak ezartzeko unea, eta Soreasura aldatuko gara. Beraz, ikastetxeetatik urrunduko gara, baina beste gertutasun bat izango dugu, kultur mugimendua han zentralitatuta egongo delako. Soreasu bada espazio natural bat guretzat, kultura lantzen duen hezkuntza gara eta. Beraz, inora joatekotan, Soreasura. Lekualdatzeari heldu aurretik, ordea, 40. urteurrena behar bezala ospatzea da gure erronka. Urteurrena datorren ikasturte osoan zehar ospatzea da gure asmoa, ez egun bakar batean. Hasita gaude lanean eta aukerak aztertzen; pandemiak kalean kendu digun presentzia berreskuratu nahi dugu. Antzerki Topaketek ere 40 urte beteko dituzte aurretik. Badago zer ospatua herrian. ■■■



Beste eredu bat posible delako

Udaltzaingo eredu zehazteko eta erakunde horrek eskainiko dituen zerbitzuak finkatzeko lanketa egin dute. Bi dira erronkak: indarkeria matxistari aurre egitea eta kultur aniztasunean eragitea. Horretarako, prebentzioan jarri dute arreta eta fokua.

Testua: **Julene Frantzesena**. Argazkiak: **Alex Berasategi, Julene Frantzesena eta utzitakoak**.



Zer Udaltzaingo eredu nahi dugu herrian? Zer kudeaketa eredu izango du Udaltzaingoak?". Galdera horiei erantzuteko asmoz, haurnarketa prozesua eta barne lanketa egiten hasi zen joan zen urtean Azpeitiko Udala. Izan ere, Josu Labaka udalaren Zerbitzu Orokorretako batzordeburuak adierazi duenez, "berezitasunak" dituen "udal zerbitzu bat gehiago" da Udaltzaingoa. "Gertukoa eta herritarren zerbitzura egongo den elementu bat gehiago izatea nahi dugu. Horregatik egin dugu lanketa, egiten dugun hori hobetzeko helburuz, zerbitzua etengabe hobetzeko. Nora iritsi nahi dugun zehaztu dugu, eta ideal horretara iristeko urratsak landu ditugu".

Udaltzaingoaren eredu berria ezaugarritu dute hark azaldu duenez: "Udaltzaingo eredu herritarren zerbitzura dagoen elkarbizitza tresna gisa ikusten dugu, prebentzio ikuspegitik abiatuta. Azpeitiko Udaltzaingoa hezitzailea, pedagogikoa eta bitartekaritzarako prestatua da, eta hori ez da ohiko polizia ereduaren definizioa". Udaltzaingoaren norabide berrian prebentzioari eman diote garrantzia, Udaltzaingoak egin behar duen heziketa lanari. "Aldaketaren filosofia nagusia Udaltzaingoak izaera hezitzailea edukitzean datza. Herritarrei laguntzea, arazoak saihestea eta ikuspegi hezitzailetik aritzea dira helburuak".

Lanketa hori egiteko abiapuntua neurgailu batzuen emaitzetan jarri dute. Herrietan zenbat arau hauste penal izaten diren jasotzen dute erakundeek, eta Azpeitiko datua izan dute hasierako puntua. Hain zuzen ere, Azpeitiko arau hausteen 2021eko tasa inguruko



herrietakoa, Gipuzkoakoa nahiz EAEkoa baino baxuagoa da – ikusi taula 24. orrialdean–: 1.000 biztanleko 15,27koa da delitu tasa –2020an 14,96 zen zenbateko hori–. "Herriko delinkuentzia tasa oso-oso baxua da, eta horrek esan nahi du Azpeitia ez dela herri gatazkatsua". Horren arrazoiari erreparatu dio Labakak. "Herrian kohesio handia dagoelako izango da hori ziurrenik. Akatsa litzateke delitu gutxi Udaltzaingo ona dugulako izaten direla esatea, baita alderantziz ere: datuak ez dira txarrak polizia txarra delako". Hark dioenez, askotan arau haustek bazterkeria egoerak edo arazo sozialak daudelako izaten dira; egoera horiek bultzatzen dute pertsona bat arauak haustera. "Ez dugu ezkutatuko Azpeitian arazoak daudela: indarkeria matxista kasuak daude, eta bazterkeria soziala ere bai. Herri bezala arazo estrukturalak ditugu, generoari eta aniztasunari lotuta, eta erronka da horiei aurre egitea. Horregatik jarri behar da prebentzioan arreta".

Haren hitzetan, "balioa" eman behar zaio Azpeitiko egoerari, "Azpeitia kakotx artean herri segurua" delako. "Herritarrek artikulatuta daude beren sareetan, eta sare horiek nahiko trinkoak dira; horrek elkarzaintzan eragina du". Egoera horrek lanketa egiteko "aukera ona" eman diela uste du, eta horregatik egin dute, hain zuzen, Udaltzaingo ereduari buruzko lanketa. "Errealitatea hobetzea da xedea, herritarrei laguntzea, eta udalak herritarrekin eta eragileekin egin behar du lan, egoera hobetzeko". Udaltzaingoa ren norabide berria ezaugarri hainbat



zerrendatu dituzte, eta inklusioa, tokikotasuna, aitzindaritza, jasangarritasuna, herri atxikimendua, elkarlana, euskal nortasuna eta parekidetasuna hartu dituzte kontuan, besteren artean.

Proiektu "garrantzitsuak"

Filosofia zehaztuta, lan ildo eta programa berri batzuk jarri dituzte martxan Udaltzaingoaren lantaldean. Batetik, udaltzainen egitekoen artean da gertakariei erantzuna ematea, "herritarren eskaerei" erantzuna ematea, Anartz Toldedo (Oiartzun, Gipuzkoa, 1981) udaltzainburuak dioenez. "Urtea hasi zenetik, 3.000 bat intzidentzia kudeatu ditugu, mota guztietakoak; pilota bat erori zaiola, istripua izan duela, lapurreta egin diotela, giltzak galdu dituela... Lan bolumena handia da, baina kasu horietako asko asistentzialak dira; gure lanaren %80 zerbitzua ematean datza".

Bestetik, baina, orain hilabete batzuk martxan jarri zituzten prebentzio programetan ari dira buru-belarri lanean, halakoak ez diren kasuak behar bezala artatzeko. "Egoera zaurgarrian egon daitezkeen herritarrei zuzendutako zerbitzuak dira, batez ere", azaldu du. Babesa izeneko zerbitzua da horietako bat: "Indarkeria matxista jasan duten emakumeekin, etorkinekin, adingabeekin nahiz egoera zaurgarrian diren pertsonekin egiten dugu lan. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren Etxekoan eta Emakumeen Babesa (EBA) proiektuan sartuta gaude", azaldu du udaltzainburuak. Udaltzaingora jotzen duten pertsona horiei "berbiktimizazioa saihesteko estrategiak, aterabide egokien proposamenak-eta"

**"ALDAKETAREN
FILOSOFIA NAGUSIA
UDALTZAINGOAK
IZAERA HEZITZAILEA
EDUKITZEAN DATZA"**

**"HERRIKO
DELINKUENTZIA TASA
OSO-OSO BAXUA DA;
AZPEITIA EZ DA HERRI
GATAZKATSUA"**



Udaltzaingoko nahiz udaleko beste hainbat sailtako kideek egindako bileretako nahiz bisitetako irudiak.

eskaintzen dizkiete, eta konpromisoa, gertutasuna nahiz enpatia agertzea "oso garrantzitsua" delakoan dago.

Zerbitzu berrietako beste bat Bitartekaritza izenekoa da, gatazken konponbide adostuak lortzen laguntzeko martxan jarria. Hala azaldu du Toledok. "Arazo pribatuaren aurrean Udaltzaingoak zerbitzu hori eskaintzen du, gaztazkak modu adostuan konpontzeko. Kasuak konfidentzialak dira, eta udaltzainek egiten dute bitartekari lana, arazoa epaitegietara irits ez dadin. Batez ere, bizilagunen arteko arazoak beste era batera kudeatzeko zerbitzua da. Momentu honetan hamalau espediente ditugu zabalik, eta 60 lagun ari dira horietan parte hartzen".

Bi proiektu horiek "oso garrantzitsuak" direla uste dute zinegotziak nahiz udaltzainburuak. "Prebentzioan zenbat eta gehiago inbertitu, gutxiago beharko da erreakziorako. Beti egongo da zerbaiten aurrean erantzun beharra, baina beste herri batzuekin alderatuta, Azpeitia herri oso segurua delakoan nago", azaldu du Toledok. Labakak dioenez, emakumeei nahiz adin txikikoei lotutako arazo asko "dramak" izaten dira, eta horiei lehen arreta emateko sentsibilitatea behar da. "Horregatik egin dira udaltzainak prestatzeko saioak; udaltzaingo gaurkotuaz ari garenean, gertuko Udaltzaingoaz ari gara, kaltetutako pertsonari babesa emango dionaz eta egoerak eskatzen duen moduan lan egingo duenaz".

"Gizarte bezala ditugun arazoak delinkuentzia forman agertzen dira, modu batean edo bestean, eta generoarena elementu argi bat da". Hala dio Labakak. "Gizartean gizonen eta emakumeen artean dagoen desorekak indarkeria matxistaren baitan erakusten du aurpegirik txarrena. Herri bezala dugun egiturazko arazoa da hori". Hark azaldu duenez, Udaltzaingoaren bidez, "egoera larri hori" bizi duten emakumeei babesa agertzen saiatzea da helburua, "lehentasunezkoa" delako. Horrez gain, ordea, desegituratutako familietakoak diren eta egoera larria bizi duten adin txikikoen ondoan egotea ere bada xedea. "Denontzako herriaz ari bagara, behar gehien dutenengandik abiatu behar dugu, eta horiei aterabidea emateko baliabideak jarri behar dira".



Bestalde, Ikuskapena zerbitzua ere martxan dute: bide okupazio eta obra ikuskapena egiten dute udaltzainek.

Bisitak han eta hemen

Azpeitiko Udaltzaingoak urte guztiko egun guztietan 24 orduz ematen du zerbitzua, eta gaur egun, hogeitazazpi langilek osatzen dute taldea. Labakak azaldu duenez, herritarrekiko 24 orduko konexio iraunkorra duen udaleko zerbitzu bakarra da, eta hark esan duenez, udalak bere garaian hartutako erabaki baten ondorio da hori. "24 orduko zerbitzua ezartzea ez zuen Udal Gobernu honek erabaki. Hala ere, mantendu egiten da, eta hori erabaki politikoa da, inbertsio bat. Izan ere, beste herri askotan ez dago gaueko udaltzain zerbitzurik".

Urteko 365 egunetan egiten duten lanaren oinarria berri dute jada, eta hainbat lan ildo finkatu eta martxan jarri dituzte. Horretarako, udaltzainak protagonista izan diren prozesu bat gauzatu zuten 2021eko urritik aurtengo martxora bitartean. Udaltzainburuaren arabera, "garrantzitsua" izan da egin duten bidea. "Azpeitiak dituen baldintzak dauzkalako egin ahal izan dugu prozesua". Hark Labakak esandakoa berretsi du, gainera: "Delikuentzia tasa baxua da Azpeitian, herritarren artean kohesio handia dagoelako. Bestalde, herriak geografikoki duen kokapena ere aipatzekoa da".

Gainera, beste herrialde batzuetako udalerrri hainbat bisitatu dituzte, udaltzaingoaren esperientziak jasotzeko eta horietatik ikasteko. Adibidez, arazoak konpontzeko bitartekaritza zerbitzuari lotuta, Alcovendasen (Madril), Sagunton (Herrialde Katalanak) eta Vila-realén (Herrialde Katalanak) izan dira. Madrilen, berriz, kultur aniztasunari buruzko saioak egin dituzte, eta Villajoyosan (Herrialde Katalanak) indarkeria matxista digitala jorratu dute. Gainera, Iruñeko nahiz Donostiako udalek indarkeria matxista kasuak nola lantzen eta artatzen dituzten ere gertutik ezagutu ahal izan dute. "Hemendik kanpo errealtate horiek badira eta gaiok lantzen ari dira. Horregatik da garrantzitsua besteek zer egiten duten ikustea. Adibidez, indarkeria matxista digitala gaur-gaurko gaia da, eta guk ere landu egingo dugu, hortxe dagoen afera

**"PREBENTZIOAN
GEHIAGO INBERTITUZ
GERO, ERREAKZIORAKO
GUTXIAGO BEHARKO
DA"**

**"DENONTZAKO
HERRIAZ ARI BAGARA,
BEHAR GEHIEN
DUTENENGANDIK
ABIATU BEHAR DUGU"**

ARAU HAUSTE PENALAK	2020 (1.000 biztanleko)	2021 (1.000 biztanleko)
Arau hauste penalak Araba, Bizkai eta Gipuzkoan	45,05	50,40
Arau hauste penalak Gipuzkoan	40,70	45,60
Arau hauste penalak Azkoitian	16,94	19,56
Arau hauste penalak Zestean	32,61	24,67
Arau hauste penalak Azepeitian	14,96	15,27

delako; gazteak eta nerabeak teknologia berrietan daude, eta errealitatea aldatu egin da", azaldu du Toledok.

Osoetasunak duen garrantzia

Gaia "osotasunean" hartu behar dela esan du zinegotziak. Izan ere, indarkeria matxista nahiz aniztasuna errealitatea dira Azepeitian ere, eta Toledok azaldu duenez, bi horiexek dira Udaltzaingoarean erronka nagusiak. Udaltzaingoak prebentzio lanak egingo ditu, baina Labakak esan duenez, udaleko gainerako sailen nahiz herriko eragileen norabide berean. "Bidea egin behar dugu herria ditugun arazo sozialei aurre egiteko, eta prebentzio ikuspegia landu beharra dago herria hobetzeko. Udaltzaingoa herri bezala egiten ari garen bide horren parte bat gehiago da".

Udaltzainburuak dioenez, "trantsizio" egoera bizi dute, egiteko modu berrietara moldatzen ari direlako. "Askotan udaltzainok isunekin lotzen gaituzte herritarrek, baina ulertu behar dute isun horiek arau hausteak dituztela atzean. Kalte bat sor daitekeelako jartzen ditugu isunak. Jakitun gara guk ere dena ez dugula ondo egiten, hanka ere sartzen dugu, eta zilegi da hori onartzea. Errealitatea, ordea, ez da hori bakarrik; Udaltzaingoa egoten da ikastetxeen atarrietan haurrei laguntzen, festetan herritarrei babes ematen, suteetan, istripua izaten duenari laguntzen, hala behar duten emakumei zaintza eta babes eskaintzen, hildakoak dauden gertaeretan... baina jendea isunekin akordatzen da".

Dena den, herritarrek Udaltzaingoarekin duten harremana ere aipatu du Toledok. "Azepeitiko parte dira udaltzainak, eta jendea lasai joaten da bulegora; giltzak galdu dituelako –Azepeitian asko galtzen dira [barrez]– edo beste edozer dela eta; hori ez dugu galdu behar". Labakak ere zentzu berean hitz egin du: "Herritarrek eskura dagoen, irisgarria den eta erraz hitz egin daitekeen Udaltzaingo zerbitzua nahi dutela uste dut. Baina Udaltzaingoak autoritatea ere izan behar du; izan ere, isunak bizikidetza kontuak tarteko jartzen dira askotan. Auto bat espaloian aparkatuta baldin badago eta elbarri batek ezin badu handik pasatu, zer?".

Labakaren aburuz, herritar guztientzako zabalik da Udaltzaingoren zerbitzua, nahiz eta inork beharrik ez izatea litzatekeen onena. "Herritarrek, behar txiki bat edo izugarritzko arazoa dutelako, baina erraz jotzen dute Udaltzaingora, eta hori garrantzitsua da". Toledok ere hala uste du. "Batuetan asmatuko dugu, eta besteetan ez, baina ahalegindu behar dugu ahal den guztietan asmatzen". ■■■■

NON DAGO UZTARRIA?

Lehiaketan parte hartzeko aurkitu aldizkarian Uztarría pertsonaia eta bidali erantzuna lehiaketakuztarría@gmail.com e-postara irailaren 12a baino lehen. Bazkidearen izena eta telefono zenbakia zehaztu behar dira.

Saria: Kutxillo urdaitegiaren produktu sorta.



Uztailleko Uztarría aldizkarian Uztarría pertsonaia non ezkutatuta zegoen asmatu behar zen: 30. orrialdean zegoen ezkutatuta, eta Imanol Galarraga bazkidea izan da irabazlea; haren anaiak jaso du saria.



URDAIAZPIKO,
HESTEBETEAk eta GAZTAK

Etxeko berezitasuna:
EZKUR URDAIAZPIKO IBERIKOIA



Eñaut: 656 79 14 19
Oier: 618 24 01 73
kutxillo@gmail.com
Damazo Azkue 6
AZPEITIA

"Tenperatura gora doa; energia berriztagarriak beharrezkoak ditugu"

OLATZ ARRIAGA IKERLARIA

Nanozientzia eta Nanoteknologia ikasi zuen Olatz Arriagak, eta energia berriztagarrien inguruko masterra gauzatu ostean, doktore tesia egiten ari da Suitzan. Eguzki plaka eraginkorrakoak lortzeko helburuarekin, haien inguruko ikerketa garatzen ari da. Argi du energia berriztagarriak direla etorkizunerako giltza. Testua: **Ihintza Elustondo**. Marrazkia: **Olatz Alkorta**. Argazkiak: **Olatz Arriaga**.


Zientzia aipatuta, gehiago edo gutxiago, herritar denek dakite zer dagoen horren atzean. Baina zer da nanozientzia? Ziur aski, gutxiago ezagutzen da zientziaren adar hori. Horixe da, baina, Olatz Arriaga Arrutiren (Azpeitia, 1995) jarduera eremua. Nanozientzia eta Nanoteknologia ikasi zuen Bartzelonan, eta Zaragozan (Espainia) eta Ingalaterran Energia Berriztagarrien Europar Masterra gauzatu ostean, doktore tesia egiten ari da egun Suitzan. Zehazki, Neuchatel hirian ari da ikerketa garatzen, energia fotovoltaikoaren inguruan.

Oso eskala txikian, nanoeskanan, garatzen den zientzia da nanozientzia, hark azaldu duenez. "Nanoeskala metroa baino mila milioi aldiz txikiagoko eskala da". Hau da, nanozientziak zientziaren arlo ezberdinak lantzen ditu, baina eskala horretan: fisika, kimika, biologia, elektronika... Oso maila txikian lan egin arren, emaitzak gauza handiagoetarako baliatzen direla azaldu du Arriagak: medikuntzaren

arloan, minbizia tratatzeko; elektronikan, karbonozko nanotuboak garatzeko... "Arlo askotan aplikatzen da nanozientzia", dio. Dena den, lana laborategira "oso mugatuta" dagoela azpimarratu du. "Ikerketara bideratuta dago nanozientziaren mundua. Zientzia puruak lantzen ditugu".

"Bihozkada" baten ondorioz eman zuen azpeitiarrak Nanozientzia eta Nanoteknologia ikasteko pausoa: "Ikasketak aukeratzeko garaia iritsi zitzaidanean, ez nekien zer hautatu, jende askori gertatzen zaion bezala. Banekien fisika eta matematika gustatzen zitzaizkidala, baina ez nekien ingeniariaren bat egin edo zer bide aukeratu. Denetarik begiratu nuen, eta gurasoekin Bartzelonara joan nintzen, Nanozientzia eta Nanoteknologia graduaren ate irekietara, eta zera esan nion amari: 'Hemen ikusten dut neure burua"'. Gainera, gogoan du orduan grafenoaz asko hitz egiten zela; nanozientzia baliatuz garatzen den substantzia bat da hori: "Esaten zuten hori izango zela etorkizuna". Halaxe, bihozkada eta arloak





Olatz Arriaga doktore tesia garatzen ari den laborategian, Suitzako Neuchatel hirian. UTZITAKOAK

etorkizunean izan zezakeen garrantzia bultzadatzat hartuta, lau urte eman zituen Katalunian, ikasketak garatzen.

Tesia: aurreikusi gabeko plana

Energia berriztagarrien inguruko masterra egiten ari zela sortu zitzaion Arriagari Suitzara joateko aukera. "Masterraren parte zen praktikak egitea, eta orduan etorri nintzen Suitzara, sei hilabeterako". Haren asmoa ez zen inondik inora Suitzan doktore tesia egiten gelditzea, baina askotan, espero gabeko planak izaten ditu bizitzak norberarentzako: "Nire asmoa ez zen inondik inora doktore tesia egitea. Izan ere, praktikak egiten ari nintzela ikusi nuen zenbat denbora behar den halako lan bat garatzeko. Dena den, praktikaldia amaitzen ari nintzela, arduradunak doktore tesia egiteko aukera eskaini zidan, eta pentsatu nuen agian sekula berriro ez nuela halako aukerarik izango". Halaxe, pausoa ematera erabaki zuen, eta ez da damutu. "Proiektua polita da, eta laborategian oso giro ona daukagu; denok gazteak gara, leku ezberdinetako jendea dago, haietako asko tesiak egiten ari dira...".

Doktore tesia egiten ari direnei zaila egin ohi zaie haren muina azaltzea, eta gauza bera gertatzen zaio Arriagari ere. Eguzki plaken inguruan ari da ikertzen, EPFL Ecole Polytechnique Federale de Lausanne unibertsitateko PV-lab laborategian; zehazki,

plaka horien fidagarritasuna da haren jarduera eremua, haiek ahalik eta eraginkortasun handiena izan dezaten ari da ikertzen. "Eguzki plakek ahalik eta denbora gehien iraun dezaten lortzen saiatzen gara gu. Izan ere, kanpoan egon ohi dira plaka horiek, eta haizearen, euriaren, tenperatura aldaketan, tentsio altuen, hegaztien eta abarren eraginez, kaltetzen joaten dira pixkanaka. Horri aurre egiteko, material ezberdinekin probak egiten ditugu, ahalik eta plaka fidagarriena lortzeko".

Olatz Arriaga

- **Jaiotze data:** 1995eko apirilaren 25a.
- **Ikasketak:** Nanozientzia eta Nanoteknologia gradua eta Energia Berriztagarrien Europar Masterra.
- **Lanbidea:** Doktore tesia egiten ari da.
- **Ikertzailea ez banintz...** Agian, ingeniari itza ikasiko nuke, edo bestela, historia edo filologia.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Ariketa fisikoa egitea edo lagunekin zerbait hartzea.




Energia berriztagarrien munduan murgilduta dabil Arriaga, eta hark uste du horiek behar-beharrezkoak direla egungo munduan: "Nabarmena da gas naturala nahiz petrolioia agortu egingo direla. Gainera, Lurraren temperatura igotzen ari da, eta horren ondorioak dagoeneko ari gara nabaritzen. Lurraren tenperatura industrializazio aurreko tenperaturatik 1,5 gradu igotzen bada, esaten dute planeta ez dela gizakiarentzako leku segurua izango, eta dagoeneko 1,1 gradu igo da tenperatura. Hori saihesteko, energia berriztagarriak beharrezkoak ditugu". Ziurtasun energetikoaren gaia ere aipatu du: "Energia berriztagarriak sustatzen ez baditugu, energia lortzeko beste herrialde batzuen menpe egongo gara eta gaude dagoeneko". Energia fotovoltaikoa, aldiz, mundu guztian eskura daitekeela dio. "Eguzkia leku denetan dago, eta energia fotovoltaikoa mundu guztian lor dezakegu". Energia berriztagarri mota bakar bat baliatuta, ordea, arazoa ez dela konponduko uste du: "Biomasa, energia hidraulikoa, eolikoa, fotovoltaikoa... denen arteko konbinazio bat behar dugu, denontzako energia izango badugu".

Suitzan, "gustura"

Arriagak datorren urtean amaituko du doktore tesia, eta bukatzean, energia fotovoltaikoari lotuta lan egitea nahiko luke. "Hori argi daukat,

baina gero beste kontu bat izango da zer sortzen zaidan". Ikerketaren arloa ere gustuko du, atsegin du laborategiko lana, baina ez luke nahi "karrera akademikoa" edukitzea. "Izan ere, ziurgabetasun handia izan ohi duzu ikerketaren munduan, beti proiektuen bila aritu behar duzu...". Horregatik, I+G enpresa batean lan egitea izango litzateke berarentzat "ideala"; hau da, ikerkuntza eta garapena uztartzen dituen enpresa batean aritzea.

Tesiak "ordu askoko lana" eskatzen duen arren eta zeregina "exijentea" den arren, Suitzan esperientzia "ederra" bizitzen ari dela azpimarratu du Arriagak. "Beti izan dut argi Euskal Herritik kanpo lan egingo nuela. Asko gustatzen zait beste kultura batzuk, jende berria eta hizkuntzak ezagutzea. Asko aberasten zaitu horrek". Lanari dagokionez, "bete" egiten du orain egiten ari denak: "Nahiz eta gutxi izan, nire jardunak egungo arazoei aurre egiten laguntzen duela sentitzen dut. Gainera, asko gustatzen zait laborategiko lana, baita konferentzietara joatea eta nire lana ezagutzera ematea ere. Asko ikasi dut zientifikoki idazten, jendaurrean gauzak aurkezten... Denean bezala, arlo honetan ere egun hobeak eta txarragoak izaten ditugu, baina balorazio orokorra oso positiboa da. Pozten naiz hartu ditudan erabakiez, eta ez nintzateke atzera itzuliko. Zertarako pentsatu atzera bueltatu nahi duzula, ezin baldin baduzu?". ■■■



Ordena itzazu dortokak handitik txikira (handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 6). Ondoren dortoka guztien askolak apainduka dituzu, honela: Lehenari edo handienari laukiak marraztuko dizkiozu, bigarren handienari hexagonoak, hirugarrenari erronboak, laugarrenari hirukiak, bosgarrenari biribilak eta seigarrenari uhinak.

Handitik txikira

DOMINOAN

Osatu lauki zuriak, hanako domino zati honek zentzua izan dezan.



biLATU

Zenbat limoi-erdi ote daude koadro honetan? Beste zortzi elementu ere errepikatuta daude, bi aldiz ageri dira. Zeintzuk dira? Bide batez, margotu gustuko dituzun marrazkitxoak.


Oporrak NON?

Marratzu zure burua uharte galdu honetan eta basamortuan, gameluaren gainean. Nor marratzuko duzu aldamenean? Lagunen bat? Txakurra? Kolore biziz margotu.



Gezezi garraia

Aurki itzazu bi lursien artean dauden eldieak. Homajia diru guztira.



U			Z	R
	E			
I				D
	R		Z	
		R	U	
Z	E		D	I

Sudokua

Bete itzazu sudokuanen lauki zurik IZURDE hitza osatzen duten letra kontuan hartuta (I, Z, U, R, D eta E). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta anez bakoitzeko.



Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

badator

uztarria^{ren}

tonbola

tonbola

ton

bola

tonbola

2022

tonbola
ton
bela
tonbela
ton
bela
tonbola



Bekadunak



OIER ETXEBERRIA

Batez ere uda sasoiari, ohikoak izaten dira komunikabideetan honelako iragarkiak: "Gurekin lan egin nahi?". Kazetari seniorren ikasturtea amaitu ahala lizentziatu berrien uholdea, udako albistegietan.

Bekadun terminoa erabiliak lausotutako hitza da. Askotariko ikaste-langile trantsizioak izendatzeko entzun arren, teknikoki beka bat ikasketarako edo ikerkuntzarako dirulaguntza litzateke. Antzeko zerbait gertatzen da *praktikak* hitzarekin ere. Testuinguruaren arabera, titulazioa eskuratzeko beharrezkoak, hautazkoak edo osagarriak izan daitezke.

Kasu askotan, gradu, ziklo, master edo dena delakoa amaitu duenari eskaintzen zaion lehen lan kontratuari, praktiketakoa, formakuntzakoa, deitzen zaio. Gehienoi praktiketakoen antzeko irudia datorkigu gogora: aginte egituraren azken katebegiak, fotokopiak egitera kondenatuta, lankideentzako kafearen karraio.

Beste kontzeptu bat ere badarabilte ahotan hezkuntza arduradunek: alternantzia edo duala. Ikasturtean zehar, klaseak amaitu ostean, ikasketekin zerikusia duen zerbaitetan jardunaldi erdiz lan egitea da alternantzia. Nonbait, jubilatutako artekoak ez dira aski urte lanerako, eta ibilbide akademikoari ere koskatxo bat kentzea komeni da.

Horrek bi gauza iradokitzen ditu: batetik, ibilbide akademiko hutsak ez duela balio profesional bat lanean hasteko moduan hezteko; bestetik, erakundeek beren lana egiteko gai ez diren pertsonak kontratatzen dituztela, horien irakaskuntza beren gain hartuz eta salbuespenezko akordio ekonomiko bat erdietsita.

Badira ikasketa planetik kanpoko praktika batzuk ere, guraso askori ideia ona iruditzen baitzaio semeak edo alabak udan bolada batez lan egitea, pezeta batzuk ateratzeko. Kostaldean ostalaritzan, barrualdean tomate biltzen edo ume zaintzan. Praktika horien ikasgaia leziorik oinarrizkoena da: eskarmentua. Egunean zortzi ordu, bizitzako 40 urte horrela pasatu nahi ez dituenak saiatu bedi liburuei begira.

Haurrek 16 urte bete artean, derrigorrezko hezkuntzan oraindik, bekek bestelako izaera dute. Etxean zailtasun ekonomikoak dituztenentzat eskola materialera eta jangela zerbitzura bideratutako laguntzak dira gehienbat. Janak eta liburuek berdinduko

UNIBERTSITATEETAKO PROPAGANDAK KOLONIA IRAGARKIEN FIDAGARRITASUN BERBERA DAUKA

dituztelakoan diruaren hanka zuloak.

Gaur egun, hormarik gabeko haur eskoletan edo Arizmendiarrietaren oinordekoengandik antzeko esloganak entzuten dira. Proiektuetan oinarritutako metodologiak, teoria buruz ikastearen arbuia, talde dinamikak, arazo errealei konponbidea emateko lanketa, ebaluazio jarraia eta abar. Nork berea soilik du eredu pedagogiko berritzailetzat eta originaltzat. Azterketetan bezalaxe, nabarmena izaten da bata besteari kopiatzen badio.

Unibertsitateetako propagandak kolonia iragarkien fidagarritasun berbera dauka. "Gustatzen zaizuna ikasi" baina "etorkizuneko lan irteerak" ahaztu gabe, buruan larunbat iluntzeak besterik ez dituzten nerabeentzat.

Derrigorrezko hezkuntza amaitzean ez dago bakoitza zein sehaskatakoa den disimulatu beharrik. Formakuntzak jakineko bideetara irekitzen ditu atea. Bekadun batzuei *Eman ta zabal zazu* edo *Jakintzak askatuko zaitu* predikatuko zaie. Beste batzuk zokaloentzako eskailleraren bila bidaliko dituzte. Ordurako erabakita egoten baita nork garbituko dituen eskuak komunera joan aurretik, eta nork komunetik irten eta gero. ■■■

40 urte martxan

TESTUA: **NORA ALBERDI**

ARGAZKIAK: **UTZITAKOAK**

Duela 40 urte euskara entzun zitekeen lehen telebista katea sortu zen: ETB. 1980. urtean EAJk irabazi zituen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak, eta Eusko Jaurlaritzak 1982an ekin zion telebistaren proiektuari, Ramon Labaien Kultura sailburuaren gidaritzapean. 1984. urtean hasi zen ETBn lanean Maolo Erkizia (Azpeitia, 1963), kazetaritza ikasketak oraindik amaitzeke zituela. Gaur egun, albistegietan aritzen da kazetari, politikaren arloan.

Telebista katearen lehen emisioa 1982. urteko Gabon zahar gauean izan zen; Garaikoetxea lehendakariaren mezua helarazi zuten, hain zuzen ere. "Telebista autogobernuaren hirugarren zutarria zela esaten zen lehen", dio Erkizia. Hastapen haietan, zailtasun tekniko nahiz politiko ugari bizi izan zituzten, Espainiako Gobernuak egitasmoa aurrera ateratzeko askotariko trabak jarri zituelako. Erkizia kazetari lanetan hasi zenean, eguerdian gaztelera eta iluntzeetan euskaraz izaten ziren albistegiak. Iurretan (Bizkaia) kokatzen zen ETBren erredakzioa orduan, eta guztira, lau-bost lagunek egiten zuten lan han. Erkizia dioenez, lehen

urte haietan asko hitz egiten zen Euskal Telebistak "inoiz" izan behar ez zuenaz: dimentsioa kontuan hartuta, ez zuten nahi TVEren modukoa izatea. "ETB elefante bat bihurtu da, eta orain zaila da hori mugitzea", aitortu du.

Azpeitiarrak Leioan (Bizkaia) egin zituen kazetaritza ikasketak; bost urtekoa zen gradua garai hartan. "Uste dut euskaraz gai batzuk landu genituen lehenengoak izan ginela, eta hirugarren maila bukatzerako, lanean hasi nintzen, garai hartan ez baitzegoen euskaraz zekien jende asko", esan du Erkizia. Euskaraz hitz egiten zekien jendea bai, baina ikasle gehienak gaztelera hitz egitera ohituta zeudela azaldu du, eta beraz, euskaraz hitz egiten zuen jendea behar zela albistegietarako. Kazetaritza "bokazioz" egin zuela nabarmendu du Erkizia: "Garai hartan arraroa zen hori, jendeak zerbait egin behar zelako ikasten zuen kazetaritza". Gradua jende askok amaitu arren, horretan

**ETB-REN HASIERAKO
HELBURUAK BETE
DIREN GALDETUTA,
ERKIZIAK ZALANTZA
EGITEN DU**

jende gutxi egiten zuela lan aipatu du. "Lagun asko ginen karreran, baina euskarazko adarrean gai batzuk lantzen genituenak hogeit bat-edo bakarrik".

ETB2, berriz, 1986an sortu zen, "sekretupean", Erkiziaren arabera. "Guk ere sorpresaz hartu genuen. Gaiz hitz egiten zuten, baina proiektua martxan zegoenik ez genekien. Momentuko zuzendariak deitu zigun ETB2 sortu zutela eta hurrengo egunetik aurrera lan bikoitza egin beharko genuela esanez: 20:00etan euskarazko albistegia, *Gaur Egun*, eta 21:00etan, gaztelera, *Teleberri*. Langile berberak egiten zituzten bi saioak. ETB2 sortu zenean Ardantzaren lehendakaria, eta hura ere gaztelera katea sortzearen kontra egon zela pentsatu izan dela jakinarazi du Erkizia. "Aurkari asko izan zituen ETB2k sorreran. Momentuko abertzale mugimenduak ere ez zuen oso ondo ikusi gaztelera kate bat sortzea: GAL aurka zegoen, TVEk ere izugarriko oztopoak jarri zituen eta Espainiako Gobernuak Guardia Zibila bidali zuten telebista katea ixtera".

Hasierako sentipenak

Erkiziari asko gustatu zitzaion hasiera hartan lankideen artean izan zen motibazioa: "Familia



Maolo Erkizia Carlos Garaikoetxea elkarrizketatzen, 1986ko hauteskunde gaueko programan. UTZITAKOA

bat ginen, jende gutxik osatzen genuen-eta taldea. Esaterako, albistegietan bost bat pertsona-edo izango ginen lanean". Garai hartan, gauza asko gertatu ziren: ETA indar betean zegoen, GAL ere orduan sortu zuten, eta otsailaren 23ko estatu kolpearen ondoren, PSOEek eta UCDEk desentralizazioari buelta eman eta zentralizazioa bueltatzeko Prozesu Autonomikoaren Harmonizazioko Lege Organikoa jarri zuten indarrean. "Modu ilegalean

egin zen, konstituzioaren kontrakoa zen. Lege organiko berri hark lege autonomikoari indarra kentzen zion. Antikonstituzionala izan zenez, atzera bota zuten".

"Denetik apur bat" egitea tokatu zitzaion Erkiziari. Durangon hasi zen lanean – gero Iurreta bihurtu zen–, baina EITB Bilbora pasatu zenean, akordio bat egin eta Donostiako Miramonen hasi zen lanean. "Presio gehien izan nuen unea, garairik gogorrena, EAJren zatiketa

gertatu zenean izan zen; liskar asko izan ziren garai hartan. Ordutik 38 urte pasatu dira, eta urte haietan pasatutakoak eragin egin dio albistegiari; hori antzeman egiten da. Izan ere, aldaketa asko izan dira. Erakunde asko, herria, bulegoak zatitu zituen, eta gerra moduko bat sortu zen. ETB bera ere bereiztu egin zuen. Goi karguetan zeudenek ere, alde batera edo bestera jo zuten, eta horrek presioa eta zatiketa sortu zituen lankideen artean. Gainera, mehatxuak



Maolo Erkizia, lantokian. UTZITAKOAK

izan ziren, ETak eskutitzak ere bidali zituen erredakziora".

Eboluzioa

Hasierako helburuak bete diren edo ez galdetuta, Erkiziak zalantzan jartzen du ETBk euskara normalizatzeko tresna gisa bere fruituak eman al dituen. "Une hauetan *El Conquistador del Fin del Mundo* saioa da ETBren bandera. Zapalaparta handia sortzen du saio horrek, eta gazteleraz da". Era berean, herritarrek EITBren sorreran zituzten aurreikuspenak bete al diren edo ez zalantza egiten du Erkiziak: "Herritarrek esan behar dute 40 urte hauetako eboluzioa nolakoa izan den. Egin beharreko galdera honako hau da nire ustez: 'Berriz sortu beharko bagenu, orain arte egin duguna egingo al genuke berriz ere?'. Nik uste dut inork gutxik esango lukeela baietz", kontatu du. Gaur egun bestelako zerbait sortu beharko litzatekela uste du: "Egungo telebista baino merkeagoa behar luke izan, baina orain duguna kentzea garestia litzateke".

Lan egiteko moduari dagokionez, sasoi hartan informazioa biltzea "lan handia" izaten zela oroitzen du, eta zuzenekoak egitea ere bai. "Berriemaileak Madrildik zintak bidaltzeko, aireportura joan behar izaten zuen, eta bidaiatu behar zuen edozein pertsonarekin hitz egin eta zinta Bilbora eramateko

eskatzen zion, mesede gisa. Bilboko aireportuan taxi gidari bat egoten zen zinta hura jasotzeko zain". Kronika bat prestatzeko, adibidez, hogeita lau ordu behar izaten zituzten. "Gaur egun errazagoa da dena. Tresnak eta baliabideak aldatu egin dira; orain, adibidez, Txinatik kronika bat jaso nahi bada, nahikoa da ordu erdi lehenago konexioa egitea", aitortu du Erkiziak. "Hori egiteko, diru askoren truke satelite bat alokatu behar izaten zen lehen, bost edo hamar minutuko tarterako. Orain guztia erraztu du teknologiak, eta komunikabide txikiek handiekin lehiatzea posible dute gaur egun; ez komunikabideek bakarrik, baita youtuberrek ere".

Gaur egungo sentipenak

Erkiziaren ustez zaila da 38 urtez erlojuaren kontra lanean jardun eta gero motibazioari eta ilusioari eustea. 59 urte ditu azpeitiarrak, eta lankideak adin horrekin aurrejubilatuz baziren ere, orain "baldintzak gogortu" egin dituztela dio; ez dago ziur noiz izango duen erretiratzeko aukera. "Uste dut 63-64 urterekin izango dudala horretarako aukera".

Telebistaren eraginkortasunaz galdetuta, argio dio telebista ez dela "kazetaritza ona, sakona eta analizatzailea" egiteko euskarririk onena: "Lasterketa bat da, denbora oso finkatuta dago eta ez dago ezertarako

astirik". Gaur egun kalitatezko kazetaritza egitea "luxua" dela dio, eta jende gutxik egin dezakeela. Haren arabera, gutxi horiek "sakrifizio pertsonalari esker" lortzen dute kalitatea. "Komunikabideak enpresak dira, eta enpresek produktibitatea behar dute; minutu bakoitzak dauka balioa. Kontua da ordu askoko lana minutu batera murrizten dela komunikabideetan". Gainera, hedabide bat hainbeste urtez mantentzeko, Erkiziak uste du "ia ezinezkoa" dela "kalitatezko kazetaritzari" eustea. "Azkenean, albistegia kazetari batek sinatzen du, baina horren atzean langile asko daude".

Erkiziak ez du sare sozialik; hautu pertsonala egin du sare sozialik ez izateko. Saretan dabiltzan albisteak, garrantzitsuak badira behintzat, beste bide batzuetatik iristen zaizkiola esan du. Mariano Ferrer kazetari zenak hala zioen: "Hark esaten zuen politikaren bueltan dabilen kazetariak ihes egin behar duela politikariengandik, ez duela zuzeneko erlaziorik izan behar haiekin. Bat nator; behatzea da informazio egokia jasotzeko modurik onena". Halaber, esperientzia ere beharrezkoa dela uste du, adierazpenak eta politikarien jarduna ulertzeko: "Hasieran barruan eta hurbil egoten saiatzen nintzen, baina esperientziaren ondorioz ikusi dut Ferrerrek arrazoa zuela". ■■■

Larri samar



MIREN SEGUROLA

Larri ez, baina larrituta itzuli da lagun bat ospitaletik.

Aurreikusitako ebakuntza garrantzitsu bat egin diote, belauna aldatzeko, eta ia astebete ingresatuta egon ondoren, etxean da bueltan.

Gogorrak egin zaizkio Osakidetzan apopilo eman dituen egunak, baina ederki zainduta sentitu da, eta hitz ederrak besterik ez ditu artatu duten osasungintzako langile profesional guztientzako. Zeladoreak bata grisarekin, erizainak bata urdinarekin, erizain-laguntzaileak bata arrosarekin, eta medikuak bata zuriarekin. Gogoan ditu denak.

Gogoan ditu, ordea, artatu beharrean nazkatu duten ohiko kontuak ere. Gaztelera hutsean eman diote anesthesiaren arriskuak ezagutzen dituela eta akaso kirofanoan hankak luzatuta gera daitekeela dioen agiria. Jakinaren gainean dagoela eta onartzen duela esanez sinatu behar duena. Baita belaun berriarekin etxera itzultzean egin beharreko ariketa guztien azalpenak ere, gaztelera hutsean, fotokopiatuta. Edota ebakuntzaren eta altaren txostena. Eta abar. Ohiko kontuak dira lagunarentzat, eta indarrak bilduz gero, jarriko du salaketaren bat Hizkuntza Eskubideen

Behatokian, Elebiden eta gainerakoetan, ohi bezala.

Hirugarren egunean, 90 urteko aitona ekarri diote ondoko ohera. Kalean erori eta aldaka hautsi du Sorian jaio eta Donostian 70 urte daramatzan igeltsero erretiratuak. Adinean gora egin arren, umoreari eta sasoiari eusten dio oraindik gizonak. Kalean bizi den 20 urteko aljeriarra izan du orain arte gelakide aitona, eta ez da ondo moldatu harekin. Ezta samaldan bisitan etortzen zitzaizkion haren lagunekin ere. Kontuak kontu, gelakidea aldatzeko eskatu, eta nire lagunaren ondoan eman ditu egunak. Etorkinei buruz marmarrean aritu omen da egunero. Ez direla integratzen. Herri berri batera iristean bertara moldatu behar duzula, bertako ohiturak, arauak eta jendea errespetatu, eta bla, bla, bla. Hala ere, ez igeltseroak, ez tarteka bisitan

**ETXEAN BETI
EUSKARAZ ARITU DIRA.
ETA OSPITALEAN,
GAZTELERAZ HASI EZ
ZAIO BADA!**

etorri zaizkion seme-alabek, aztarrenik ere ez euskaraz, ikasteko bizitza osoa izan duten arren.

Laguna, ordea, beste zerbaitek larritu du benetan. Ama etorri zaio gaur bisitan, eta bizitza osoan biek euskaraz hitz egin duten arren, ama gaztelera ari zaio etengabe. Lagunak ez daki mina arintzeko gauean ematen dioten morfina ziztadaren edota egunean zehar irentsarazten dizkioten opiazeoen eragina ote den, ala benetan eldarniotan ote dagoen. Ama gaztelera? Nuarbetarra. Baserriko alaba. Euskaldun petoa. Etxean beti euskaraz aritu dira. Eta orain, ospitalean, gaztelera hasi ez zaio bada! Ea zer arraio eta ea zoratu den galdetuta, amaren erantzuna: ondoko aitona errespetu falta dela euskaraz aritzea, hark ez duelako ulertzen. Falta genuena! Ama, zaplastekoa jaso eta beste masaila jartzera ohitu duten belaunaldikoa. Baserritar eta euskaldun ezjakinak direla sentiarazi diete. Euskaraz hitz egiteagatik jazarri eta zigortu dituzte, eta 70 urtean bertako hizkuntza ikasteko gai izan ez denarekiko errespetu falta iruditzen zaio orain euskaraz aritzea. Horrela gabilta oraindik ere, errespetuaren izenean. Larri samar... ■■■



Jose Artetxe 14
943 151 912

GUATEMALA

2022ko urriaren 8tik 18ra
11 egun / 9 gau

3.090€

Prezioa pertsonako, gela bikoitzean
Tasak barne
Bilbotik hegaldia
Gidari laguntzailea Bilbotik

COLOMBIA

2022ko azaroaren 16tik 27ra
12 egun / 10 gau

2.675€

Prezioa pertsonako, gela bikoitzean
Tasak barne
Gidari laguntzailea Madriletik

LAPONIA

2022ko abenduaren 23tik 28ra
6 egun / 5 gau

2.630€

Prezioa pertsonako, gela bikoitzean
Tasak barne
Bilbotik hegaldia
Gidari laguntzailea Bilbotik

 **EROSKI** / bidaiak

Aztertu? Egizu Lagun





ENTZUNEZKOAK

- ZUZENeko EKITALDIEN EMISIOA
- BIDEO KORPORATIBOAK
- BIDEO MARKETINA
- SARE SOZIALETARAKO IKUS-ENTZUNEZKOAK
- PUBLIRREPORTAJEAK
- DOKUMENTALAK



GUKA  ZERBITZUAK



Lasterketak, moto gaineratik

Gaztetatik datorkio motoekiko eta ibilgailuekiko zaletasuna Eduardo Aranari (Azpeitia, 1965). Urteak daramatza birrindularitza probetako parte hartzaileen segurtasuna zaintzen nahiz kazetariak eta argazkilariak moto gainean eramaten. Afizioak eman dizkion askotariko esperientziak elkarbanatu ditu. Testua: **Maialen Etxaniz**. Argazkiak: **Utzitakoak**.

ZALETASUNAREN HASTAPENAK

Aranari haurra zela piztu zitzaion ibilgailuekiko zaletasuna: "Osabaren moto gainean jarri ninduten 4 urte nituela. Esango nuke orduan hasi zitzaidala ibilgailuen mundua gustatzen. 20 urterekin motoko gidabaimena atera nuen, eta orduz geroztik ez naiz gelditu". Ordurako, Mekanika ikasketak amaituta zituen, eta autoen, motoen nahiz bizikleten konponketa lanak egiten hasia zen. Era berean, lau urte eta erdiz Automozioiko maisu izan zen Elgoibarren. "Esperientzia horiei guztiei esker jakintza lortu nuen", adierazi du azpeitiarrak.



MOTOA ETA TXIRRINDULARITZA, "KASUALITATEZ" ELKARTUTA

Ikasketak amaitu eta maisu aritu ostean, zenbait auto lasterketatan parte hartu zuen Aranak. Dena den, Bicicleta Eibarresa proban bizi izan zuen laguntzaile gisa moto gaineko lehen esperientzia. "12 urtetatik ibiltzen nintzen bizikletan. Azpeitia eta Eibar inguruan txirrindularitza lasterketa ugari antolatzen zituzten, eta hango kideei laguntzera joaten ginen sarritan. Egun batean, ezustekoak tarteko, argazkilari bat motoan eramateko eskatu zidaten. Orduan hasi nintzen lasterketak barrutik ezagutzen eta bititzen".



ARRITXU IRIBAR, ONDOAN

Azken urteetan, Arritxu Iribar Euskadi Irratiko esatariari Euskal Herriko Itzulian nahiz Donostiako Klasikoan laguntzen jardun izan du Aranak. Iribarrek lasterketen zuzeneko kontakizuna egiten du, eta hori ahalik eta ondoen egin dezan laguntzen dio Azpeitiko motozaleak. "Normalean, pelotoiaren aurretik egoten gara, 100-200 metrora, zer gertatzen den ikusteko moduan, baina trabarik egin gabe. Motozalearen ardura da kazetariari ikuspegi egokia ematea eta hura bitxikeriak jazotzen diren lekuetara gerturatzea".



POLTSIKO BETE ABENTURA

Aranak 30 urtetik gora daramatza txirringularitza lasterketak moto gainetik bizitzen. Denetarik egin du: lotura lanak, biribilguneak kontrolatu, bidegurutzek zaindu edo kazetari zein argazkilariekin ibili. Euskal Herriko Itzulian, Euskal Bizikletan eta Donostiako Klasikoan ez ezik, hainbat herritako kadeteen, jubenilen edo 23 urtez azpikoen lasterketetan lagundu izan du. Eginbehar horretan daramatzen urteetan milaka esperientzia bizi izan dituela eta jende ugari ezagutu duela dio motozaleak. "Antolatzaileak, boluntarioak, zaleak... Jende oso ona ezagutu dut, eta milaka anekdota ditut: ogitartekoak eskaini izan dizkigute bide ertzetik, baita kafea eta kopa ere!", kontatu du barrez. Argazkian, Arana Periko Delgado txirringulari ohiarekin.



TALDEA, ASKOTARIKO LANETARAKO PREST

Argazkilariak, telebistako teknikariak edo kameralariak nahiz kazetariak eraman izan ditu Aranak bere motoan. Hark dio lasterketetan lan egiten duten askotariko profesionalak eraman izan dituela noiz edo noiz atzean; izan ere, argazkilaria eta kazetariak ez ezik, lasterketaren kontu teknikoaz eta segurtasunaz arduratzen diren kideak ere eraman izan ditu, hala nola erregulatzaileak edo epaileak.



ITZULIA, EUSKADI IRRATIAREKIN

Euskal Herriko Itzulia nola bizi duen galdetuta, proba hori jokatzeko den egunak berarentzat nahiz lantalde osoarentzat "bereziak" izan ohi direla esan du. Dena den, azpeitiarrak ez dio eguneroko lanari uko egiten: "Motoa hartu eta 06:00etarako lanean izaten naiz. Lantegitik atera eta zuzenean joaten naiz etaparen irteera puntura. Aurrez, etxean ikasten ditut bideak, bihurguneak... Dena prestatzen dut, egunean bertan lana ondo egin ahal izateko".



GUSTUKO LEKUAN...

Azpeitiko gidariak ordu asko igarotzen ditu lasterketen bueltan. Daukan zaletasuna etxean ulertzen eta errespetatzen dutela kontatu du, eta hori "eskertzekoa" dela gaineratu. Aranak, oraindik orain, afizioarekin jarraitzeko asmoa du, "gorputzak uzten duen artean, behintzat". Izan ere, lasterketetan "gozatu" egiten duela aitortu du: "Gustuko lekuan, aldaririk ez". ■■■



JANIRE ALKORTA

Plisti-plasta

Iritsi dira udako arratsalde luzeak. Izozkia eskuan hartu eta ordu luzez eguzkitan beratzeke momentu gozoak, eta noski, igerilekuan plisti-plasta jolasteko uneak. Mito asko daude igerilekuko uraren inguruan: pixa egitean uraren kolorea aldatu egiten dela, kloro asko bota dutelako haren usain handia nabaritzen dela edo buruko ilea berdetu egiten dela kloroaren eraginez. Baina zer da egia?

Kloroa gora eta behera ibiltzen gara igerilekura sartu orduko, baina hango ura ez da kloroarekin (Cl_2) tratatzen, baizik eta pastilla moduan saltzen duten sodio hipokloritoarekin (NaClO). Sodio hipokloritoa gatz oxidatzaile eta bakterizida da; kloroa, berriz, gas toxiko, narritagarri eta korrosiboa. Sodio hipokloritoa etxeko garbikari askotan aurkitu dezakegu kontzentrazio baxuetan; besteak beste, lixiban. Sodio hipoklorito pastilla igerilekuko uretara botatzean, urarekin erreakzionatu egiten du, azido hipokloroso konposatu oxidatzailea eratuz mikroorganismoak suntsitzeko.

Ukaezina da bereizgarria dela igerilekuko usaina, baina ez dago zuzenki lotuta garbitasun mailarekin ('kloro' asko botatzearekin), ez horixe! Guztiz kontrakoa. Igerilekura sartutakoan begiek pikatzen

baldin badigute eta 'kloro' usain handia baldin badago, igerilekuan zikinkeria asko sartu dela esan nahi du, hau da kloramina asko eratu direla. Nola?

Kloraminak (konposatu toxiko eta narritagarriak) azido hipoklorosoak nitrogenodun konposatuekin erreakzionatzean sortzen dira, eta konposatu nitrogenodun horien garraiatzaile nagusiak gu geu gara. Pixetan naiz izerditan aurkitzen dira konposatu horiek (fluido biologikoetan). Eta gaia ez da txantxetarako kontua. Esaten dutenez, dimentsio olinpikoak dituen igerileku batetan 200 litro pix egon daitezke batez beste. Beraz, igerilekuan pixa egiten baduzu, ez da uraren kolorea aldatuko, horregatik lasai egon, baina substantzia toxikoak eraten ariko zara, zeure osasunari kalte eginez.

Txantxa ematen zuen igerilekura sartu aurretik dutzatzearen kontuak, baina pentsatze zenuena baino garrantzitsuagoa da, ezta? Has gaitezen ba! ■■■

**TXANTXA EMATEN
ZUEN IGERILEKURA
SARTU AURRETIK
DUTXATZEAREN
KONTUAK**



IGNACIO ARAKISTAIN

Printzak

Udako gauen magia, musikari gazteen talentua, eta herritarrentzat ezagunak izan arren, eszenatoki gisa berriak zaizkien txoko bereziak. Elementu horiek batuz ondu genuen pasa den uztailean Udako Musika Printzak kontzertu zikloa. Betidanik iruditu izan zait garrantzitsua kultura ala klasikoa deituriko musika auditorio hertsien paretetatik aldentzea eta kalera ateratzea. Gizarteari arrotzak gatzazkiola diogu beltzez jantzitako interpreteok sarritan; behar genukeela jendea erakarri, zurruntasunak hautsi eta entzulearengandik banatzen gaituen hesia erautsi. Esku artean izan ohi dugun materialaren kalitatea goratzea eta horri balioa eman nahi izatea; horixe izan dezake ponpa horrek guztiak atzean.

Gauzaezinak diruditen ideiak momentu ahaztezin bihurtzeko lanean jardun duen oro eskertu nahiko nuke. 180 urte betetzear den Albergako garbitokia apaindu eta aurpegiz aldatu zuten langileei, beren gaitasunak ikusleei oparitu zizkieten musikariei zein horien proposamenak esker onez jaso zituen ikusle fidelari, eskerrak bihotzez. Iaz zein aurtengoan antolatutakoek izandako erantzun onak erabat asetzeaz gain, herriko altxor gehiago atontzen jarraitzeko gogoia pizten dit. Ez baita herritarren aurrean gau izartsu bati kantari aritzea bezalakorik. ■■■

TiEN21 ESNAOLA

ZATOZ
DENDA BERRITUA
EZAGUTZERA!



Pablo VI, 3 · Tel.: 943-08 03 55 · esnaelek@outlook.com

IZAN IRAKUR ZALE!



**EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU**
bazkide@ukl.eus • 943-81 38 41

UZTARRIA

LAGUNTZALEA



Basque Government

